

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3129

AGINDUA, 2012ko apirilaren 27koa, Kulturako sailburuarena, goi-mailako kirolariak eta teknikariak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritz, eta Dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 artikulua arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari.

Goi-mailako kirolari eta teknikarien deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2012ko apirilaren 26an egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I. eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari eta teknikari, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioa indarrean sartuko da agindu hau jakinarazten denean..

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio kulturako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluek xedatutakoaren arabera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumenari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoaren arabera.

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 27a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

I. ERANSKINA

Goi mailako kirolariak

Izen-abizenak	Espediente zk.	Modalitatea
Canales Bilbao, Leticia	204/12/D	Surfa
Kerejeta Larrucea, Joseba	203/11/D	Arrantza
Martín Enrique, Pedro César	206/12/D	Errugbia
Oroza, Flores, Aitor	201/11/D	Txirrindularitza (Egokitua)
Tudela Perret, Matias	207/12/D	Errugbia
Uematsu Treviño, Kiyoshi	205/12/D	Judoa
Zabala Artetxe, Ander	202/11/D	Arraunketa
Zabala Domínguez, Olatz	200/11/D	Piraguismoa

Goi mailako teknikariak

Izen-abizenak	Espediente zk.	Modalitatea
Carrere Zabala, Reyes	35/11/T	Eskubaloia
Uematsu, Tatsumi	37/12/T	Judoa